

OCW

PRAKTIKA GUZTIAK

**ORIENTAZIOA, DIAGNOSIA ETA ESKU HARTZEA
HEZKUNTZAN**

PRAKTIKA 1: DIAGNOSTIKOKO BALIABIDEAK EZAGUTZEN HASTEA

PRAKTIKA 2: GLOSATEGIAK EZAGUTZEN HASTEA

PRAKTIKA 3: BAIMEN INFORMATUA

**PRAKTIKA 4: MARRAZKIETAKO ERAKUSLE EMOZIONALAK, ALERTA-
ZEINUAUAK IDENTIFIKATZEA**

PRAKTIKA 5: ENEATIPOAK INTERPRETATZEA

PRAKTIKA 6: PERTZENTILAK INTERPRETATZEA

PRAKTIKA 7: ONLINEKO EBALUAZIO TRESNAK

PRAKTIKA 8: GARAPENeko DISGRAFIAREN ALERTA-ZEINUAUAK

PRAKTIKA 9: TXOSTEN-MOTAK EZAGUTZEA

PRAKTIKA 10: NORBERE EBALUAZIOA

PRAKTIKA 1: DIAGNOSTIKOKO BALIABIDEAK EZAGUTZEN HASTEA

HELBURUA: Diagnostiko pedagogikoaren edo psikopedagogikoaren inguruan dauden gidak, elkarteak, zentroak eta kabineteak ezagutzen hastea, direktorioen, webguneen eta dokumentazio zentro espezializatuen bidez.

ERANTZUN GALDERA HAUEK:

1. Zein gida ezagutzen duzu diagnostiko pedagogikoa edo psikopedagogikoa burutzen lagundu ahal dutenak?
2. Zein elkarte ezagutzen duzu diagnostiko pedagogikoa edo psikopedagogikoarekin harremana dutenak?
3. Zein kabinete ezagutzen duzu diagnostiko pedagogikoarekin edo psikopedagogikoarekin harremana dutenak?

Laguntzarako fitxa

1. Zein gida ezagutzen duzu diagnostiko pedagogikoa edo psikopedagogikoa burutzen lagundu ahal dutenak? Arakatu hauek:

-Nafarroako NHBBZ/CREENarenak. Ikus liburutegi birtualean zenbat informazio duten (1.irudia):

<https://creena.educacion.navarra.es/web/bvirtual/>



1. irudia. NHBBZ/CREENaren onlineko liburutegia

-Eusko Jaurlaritzaren argitalpenak: <https://www.euskadi.eus/hezkuntza-berri-esk-inklusihoa-dokumentuak/web01-a2inklu/eu/>

Badute gida bat adibidez, adimen gaitasun handietarako, beste bat ikasle etorri berrietarako; badute baita AFN-H sindromea duten ikasleekin jarduteko gida, eta abar luze bat.

- ORIENTASARE, Berritzegune Nagusiaren *sites*-a. Begiratu ezkerreko aldean dauden topikoak eta agian aukeratu euskarazko gidaren bat (eskola inklusiboa, laguntza bereziak, e.a. <https://sites.google.com/site/orientasare/>)

2. Zein elkarte ezagutzen duzu diagnostiko pedagogikoa edo psikopedagogikoarekin harremana dutenak? Begiratu bi dokumentazio zentro hauek:

-SIIS, Eguía-Careaga fundazioaren dokumentazio zentroa.

<https://www.sis.net/es/recursos/directorios/8/>

Begiratu 'Directorio de Entidades y Centros de Servicios Sociales', 'búsquedas avanzadas' bidez:

<https://directorioa.net/index.php?active=3&avanzada=1>

-CEDD, Centro Español de Documentación sobre Discapacidad:

<https://www.cedd.net/es/entidades/>

3. Zein kabinete ezagutzen duzu diagnostiko pedagogikoarekin edo psikopedagogikoarekin harremana dutenak? Begiratu herriz herriz egon daitezkeenak, elkargo desberdinek eskaintzen dituztenak (Psikologo Elkargoek, Pedagogiako Elkargoek, Psikopedagogiako elkargoek) edo Hik Hasiren baliabideen gida eta/edo paperean duten 'Ongizatearen gida': http://www.hikhasi.eus/Gidak/Baliabide_Pedagogikoen_gida?gaia=Erakundeak

PRAKTIKA 2: GLOSATEGIAK EZAGUTZEN HASTEA

HELBURUA: Diagnostika hezkuntzan gaiarekin loturiko hiztegia ezagutzea, hizkuntza desberdinetan: euskaraz, gazteleraz eta ingelesez.

ERANTZUN GALDERA HAUEK:

1. Zein glosategi ezagutzen duzu euskaraz? Aukeratu intereseko terminoak eta ulertzen saiatu.
2. Zein glosategi ezagutzen duzu gazteleraz? Aukeratu intereseko terminoak eta ulertzen saiatu.
3. Zein glosategi ezagutzen duzu ingelesez? Aukeratu intereseko terminoak eta ulertzen saiatu.

Laguntzarako fitxa

1. Zein glosategi ezagutzen duzu euskaraz? Aukeratu intereseko terminoak eta ulertzen saiatu. Arakatu hauek:

'Eusko Jaurlaritzaren Eskola Inklusiboaren esparruan Aniztasunari Erantzuteko Plan Estrategikoa 2012.2016' dokumentuan, begiratu 53. orritik aurrera dauden terminoak:

https://www.euskadi.eus/contenidos/documentacion/inn_doc_esc_inclusiva/e_u_def/adjuntos/eskola-inklusihoa/100011e_Pub_EJ_Plan_diversidad_e.pdf

Bilatu... Zein dira hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleak? Zer dira bermapuntuak? Zer da diseinu unibertsala?

-CREENaren Nafarroako NHBBZ/CREENako Hezkuntza premia berezien arretarako, Mugimen taldeak eginiko glosategia (begiratu baita beste taldeek eginiko glosategiak): <https://creena.educacion.navarra.es/web/eu/balorazio-eta-aholkularitza-arloa/motorikoen-taldea/motor-ezintasuna-m/glosariomeu/>

Bilatu... Zer da disglosia? Zer dira sinzinesiak? Zer da urritasuna?

2. Zein glosategi ezagutzen duzu gazteleraz? Aukeratu intereseko terminoak eta ulertzen saiatu. Arakatu hau:

-UNDERSTOOD, New York hiriko fundazio bat da. Desberdin ikasten eta pentsatzen duten pertsonen beren potentziala aurkitzen, beren bizitzaren kontrola hartzen eta bizitzako etapa guztietan bideratzen laguntzen saiatzen dira: <https://www.understood.org/articles/es-mx/terms-you-may-hear-from-learning-specialists>

Bilatu...Zer da *DSM-V*? Zer da *rango promedio*?

3. Zein glosategi ezagutzen duzu ingelesez? Aukeratu intereseko terminoak eta ulertzen saiatu. Arakatu hau:

- LD@school-en webgunea. <https://www.ldatschool.ca/learn-about-lds/glossary-terms/>

LD@school Ontarioko Ikaskuntza Desgaitasuna dutenen Elkartearen (LDAO) proiektu bat da. Begiratu nolakoak diren euskaraz ezagutzen dituzun terminoak: Zer da *giftedness*? Zer da *Tiered approach*?

PRAKTIKA 3: BAIMEN INFORMATUA

HELBURUA: Baimen informatu ereduak zelakoak diren jakitea.

Diagnosia hezkuntzan egiten hasi aurretik baimen informatua behar da (ikus 2. gaia), hau da, pertsonak eta familiak informatu egin behar dira lehenik eta euren adostasuna lortu ondoren, sinatuta.

ERANTZUN GALDERA HAUEK:

1. Ezagutzen al duzu baimen informatuko eredu bat Hezkuntzan?
2. Ezagutzen al duzu haurrentzako eginiko baimen informatu eredu bat?
3. Ezagutzen al duzu irakurketa errazean idatzitako eredurik?
4. Ezagutzen al duzu piktogramekin eginiko baimen informatuko eredurik?

Laguntzarako fitxa

1. Ezagutzen al duzu baimen informatuko eredu bat Hezkuntzan?

Begiratu 'ikastetxearen zerrendan' W67 aplikazioan sartzeko erabili behar den ereduak:

https://docs.google.com/document/d/15ZKBcsIlv_UKn3TZRJ683b9NqRqNtHipV4RipkMBttE/edit

2. Ezagutzen al duzu haurrentzako eginiko baimen informatu eredu bat?

Michiganeko Unibertsitateak adinaren arabera baimen informatu ereduak eskaintzen ditu: 3-6 urte biartean erabiltzekoa, 7-11 urte bitartekoa eta 12-14 urte bitartekoa. Ikusi beheko aldean (References and resources, CHILD ASSENT AND PARENTAL PERMISSION):

<https://research-compliance.umich.edu/informed-consent-guidelines>

3. Ezagutzen al duzu irakurketa errazean idatzitako eredurik?

Begiratu Ebaluazio psikopedagogikoa egiteko familientzako baimen informatu ereduak, 36. orrian. Ministerioak jarritako adibidea da ('descargar archivo'n sakatu):

https://sede.educacion.gob.es/publiventa/descarga.action?f_codigo_agc=16917

4. Ezagutzen al duzu piktogramekin eginiko baimen informatuko eredurik?

Begiratu easyreading.com proiektukoek eskaintzen duten piktograma bidezko eta irakurketa errazean idatzitako baimen informatu ereduak:

https://www.easyreading.eu/wp-content/uploads/2020/07/Informed-consent-pictorial-support_en.pdf

PRAKTIKA 4: MARRAZKIETAKO ERAKUSLE EMOZIONALAK, ALERTA-ZEINUAK IDENTIFIKATZEA

HELBURUA: Marrazkiek diagnosirako duten potentzialaz jabetzea eta giza-figuran gon daitezkeen erakusle emozionaletara gerturatzea.

ERANTZUN GALDERA HAUEK:

1. Zergatik dira garrantzitsuak marrazkiak Diagnostika Hezkuntzan?

Irakurri adibidez, MAGANTO, C. & GARAIGORDOBIL, M. El diagnóstico infantil desde la expresión gráfica: El test de dos figuras humanas. *Clínica y Salud*, 20(3) Madril. 2009. [Kontsulta: 2019-03-22]. Eskuragarri:

http://scielo.isciii.es/scielo.php?script=sci_arttext&pid=S1130-52742009000300005

2. Zer dira erakusle emozionalak? Irakurri erakusle emozionala zer den (indikator emocional) eta aztertu zein diren laburbiltzen diren erakusle emozionalak, Koppitz egileak eginiko lanetan oinarrituta [Kontsulta: 2019-03-22]. Eskuragarri: <http://medicinafamiliar.uc.cl/html/articulos/110.html>
3. Beti marrazkietan espezializatuta dagoen profesional batekin kontsultatu baina zein erakusle ikusten dituzu 14 urteko mutilak eginiko giza-figuraren marrazkian? ('Pertsona bat irudikatu' esaldia eta gero eginda dago marrazkia).



2.Irudia. Ibarearen artxiboko irudi bat

Laguntzarako fitxa

1. Zergatik dira garrantzitsuak marrazkiak Diagnostika Hezkuntzan?

Marrazkiak test proiektiboen barruan sartzen dira eta askotariko testak daude haurren eta nerabeen ongizatea, nortasuna eta garapena aztertu ahal izateko. Zenbait erakusle badira, alerta-zeinutzat hartu daitezkeenak.

2. Zer dira erakusle emozionalak?

Zeinu-objektiboak dira eta haurrak edo nerabeak izan ditzakeen konfliktuak erakusten dituzte. Koppitz egilearen arabera, hiru irizpide bete behar ditue erakusle emozionalak: 1) arazo emozionalak dituzten haurren eta arazo emozionalik ez dutenen artean desberdintzen ditu; 2) laginean, adinari dagokion haurretan %eko 16 baino gutxiagoan agertzen diren zeinuak dira; 3) zeinu hauek ez dute zerikusirik adinarekin eta heltzearekin zerikusirik (hala ere, erakusle emocional batzuk adinarne arabera interpretatzen dira). 1984, urtean Koppitz-ek 31 erakusle emozional sailkatu zituen.

3. Beti marrazkietan espezializatuta dagoen profesional batekin kontsultatu baina zein erakusle ikusten dituzu 14 urteko mutilak eginiko giza-figuraren marrazkian? ('Pertsona bat irudikatu' esaldia esan eta gero eginda dago marrazkia).

Esku handiak (aurpegiaren berdina edo handiago denean). Kasu honetan, aurpegua baino handiagoa da ezkerreko eskua: portaera agresiboak eta eskuekin harremandundatako ekintzak. Zatiaren integrazio ahula ere badago, inpulsibitatearen seinalea da eta buru txikia, desegokitasun intelektualaren adierazlea.

PRAKTIKA 5: ENEATIPOAK INTERPRETATZEA

HELBURUA: Eneatipoen bidez emaitzak interpretatzen jakitea, euskaraz dagoen test batetatik abiatuz.

Erabiliko dugun testa Inventario de hábitos de estudio, IHE deitzen dena.

Haxe da:

http://www.web.teaediciones.com/Ejemplos/IHE_MANUAL_2014_extracto.pdf

Bertatik hartuko dugu eginda dagoen txosten bat.

ERANTZUN GALDERA HAUEK:

Laguntzarako fitxa

1. Zer dira eneatiipoak?

2. Begiratu IHE testean (11. orrian 'Tea argitaletxeak' eskaintzen duen liburu zatitxoan ('extracto' deritzona):
https://web.teaediciones.com/Ejemplos/IHE_MANUAL_2014_extracto.pdf
Fijatu zaitez 1-9 arteko eskalan puntuak non kokatzen diren eskalaren dimentsio bakoitzean (*Condiciones ambientales, planificación, utilización de materiales, asimilación de contenidos eta sinceridad*). Erantzun a, b eta c galderak.
 - a. 2 eneatiipoa lortu du II eskalan. Zer esan nahi du?
 - b. 4 eneatiipoa lortu du IV eskalan. Zer esan nahi du?
 - c. 7 eneatiipoa lortu du III eskalan. Zer esan nahi du?

Laguntzarako fitxa

1. Zer dira eneatipoak?

Eneatipoa eskala normalizatu bat da eta 9 unitate tipiko ditu, hau da, 1etik 9ra. Ingelesez, *stanines -standard-nines-* deritzo. Erdiko puntuak 5 da eta puntuazio normalak dira 4, 5 eta 6. Zenbat eta puntuazioa altuagoa izan, orduan eta pertsona gehiago gelditzen dira aztertutako pertsonaren azpitik.

2. Begiratu IHE testean (11. orrian 'Tea argitaletxeak' eskaintzen duen liburu zatitxoan ('extracto' deritzona):

https://web.teaediciones.com/Ejemplos/IHE_MANUAL_2014_extracto.pdf

Fijatu zaituz 1-9 arteko eskalan puntuak non kokatzen diren eskalaren dimentsio bakoitzean (*Condiciones ambientales, planificación, utilización de materiales, asimilación de contenidos eta sinceridad*). Erantzun a, b eta c galderak.

- a. 2 eneatipoa lortu du II eskalan. Zer esan nahi du? Oso emaitza baxua lortu duela II eskalan, hots, Plangintzan. Begiratzea komeni da II eskalan dauden itemak zein diren, modu kualitatiboan, esku hartzeak puntu horietan egiteko.
- b. 4 eneatipoa lortu du IV eskalan. Zer esan nahi du? Emaitza normala da (normal horretan ere baxua) IV eskalan, hau da, edukinen bereganatzean (*asimilación de contenidos* eskalan edo dimentsioan).
- c. 7 da eneatipoa lortu du III eskalan. Zer esan nahi du? Emaitza altua da III. Eskalan edo materialen erabilpenean (*utilización de materiales* eskalan edo dimentsioan)

PRAKTIKA 6: PERTZENTILAK INTERPRETATZEA

HELBURUA: Pertzentilen bidezko interpretazioak egiten hasia.

ERANTZUN GALDERA HAUEK:

1. Pertzentilek zer adierazten dute?
2. Begiratu 2.orrian AEI-R testaren profil bat ('Tea argitaletxean' zintzilik dago). Zer nahi dute esan dimentsio desberdinetan zehar ageri diren PC edo pertzentilek? <https://web.teaediciones.com/Ejemplos/AEI.pdf>

Laguntzarako fitxa

1. Pertzentilek zer adierazten dute?

Oro har, 70eko pertzentila (PC) edo gehiago, puntuazio altua; 69-30 tarteko pertzentila (PC) puntuazio ertaina; 29 edo gutxiagoko PC, puntuazio baxua. Hala ere, kontuan izan test bakoitzak bere esku-liburuan interpretazio zehatzak izan ditzakela.

2. Begiratu 2.orrian AEI-R testaren profil bat ('Tea argitaletxean' zintzilik dago). Zer nahi dute esan dimentsio desberdinetan zehar ageri diren PC edo pertzentilek? <https://web.teaediciones.com/Ejemplos/AEI.pdf>

Haur batek proba honen dimentsio desberdinetan lortu dituen Pc edo Pertzentilak hauek dira:

Verbal dimentsioa: haurrak lortu duen PC edo pertzentila 98 da.

Cuantitativo dimentsioa: haurrak lortu duen PC edo pertzentila 75 da.

Orientacion espacial dimentsioa: haurrak lortu duen PC edo pertzentila 50 da.

Memoria auditiva dimentsioa: haurrak lortu duen PC edo pertzentila 75 da.

Visomotricidad dimentsioa: haurrak lortu duen PC edo pertzentila 98 da.

Madurez lectoescritora dimentsioa: haurrak lortu duen PC edo pertzentila 97 da.

Pertzentilak ikusita ondorioztatu daiteke ikasle honen eskola-gaitasunen heldutasun maila adin bereko haur gehienena baino handiagoa edo altuagoa dela.

3. Begiratu 2.orrian BAT-7 testaren profil bat ('Tea argitaletxean' zintzilik dago). Zer nahi du esan *Aptitud numérica* dimentsioan 15eko PCa lortu izana? https://web.teaediciones.com/Ejemplos/Informe_profesional_BAT7.pdf

Aptitud numérica dimentsioa hobetu behar duela. 15eko pertzentila baxua da, esan nahi du bere adinean dauden 100 ikasleko laginetik 15 dituela bere azpitik.

PRAKTIKA 7: ONLINEKO EBALUAZIO TRESNAK

HELBURUA: Ikasteko Zailtasun Espezifikoko batzuen arriskua online ezagutzeko zenbait baliabide ezagutzea.

ERANTZUN GALDERA HAUEK:

1. Ezagutzen al duzu dislexiaren arriskua detektatzeko *DyTECTIVE* baliabidea? Zer detektatzen da? Zein adinetarako? Nork sortu du? Zer egin daiteke ondoren?
2. Ezagutzen al duzu diskalkuliaren arriskua detektatzeko *Cognifit* baliabidea? Zer detektatzen da? Zein adinetarako? Nork sortu du? Zer egin daiteke ondoren?
3. Ezagutzen al duzu diskalkuliaren arriskua detektatzeko *Smartick*-en testa? Zer detektatzen da? Zein adinetarako? Nork sortu du? Zer egin daiteke ondoren?

Laguntzarako fitxa

1. Ezagutzen al duzu dislexiaren arriskua detektatzeko *Dyctective* baliabidearen testa? Zer detektatzen da? Zein adinetarako? Nork sortu du? Zer egin daiteke ondoren? Gehiago jakiteko.

Dyctective zientifikoki baliozkotutako tresna bat da, 15 minututan irakurtzeko eta idazteko zailtasunak izateko arriskua duzun detektatzen da. Hau da, *screening* proba bat da, doakoa. Informazioa hemen:
<https://www.changedyslexia.org/>

Change Dyslexiak empresa sozialak sortua da, Luz Rello doktorea burua dela. 7-17 urte bitartereko da. Ikus hemen ohar garrantzitsua:
<https://www.changedyslexia.org/informacion-importante-prueba-cribado-dyctective>

Erregistratu esteka honetan: <https://www.changedyslexia.org/register>

Ondoren, ordainduz, 42.000 joko pertsonalizatu daude, 24 gaitasun kognitibotan oinarrituta, egon daitezkeen indargune eta ahulgune kognitiboetara zuzenduta. Gehiago jakiteko (definizioak, protokoloak, e.a) ikusi hemen: <https://blog.changedyslexia.org/que-es-la-dislexia/>

2. Ezagutzen al duzu diskalkulia arriskua detektatzeko *Cognifit* baliabidea? Zer detektatzen da? Zein adinetarako? Nork sortu du? Zer egin daiteke ondoren? Gehiago jakiteko.

<https://www.cognifit.com/es/evaluacion-cognitiva/test-discalculia> Lineako

Diskalkulia izateko arrisku indizea ebaluatzeko aukera ematen duen baliabide zientifiko bat da. Test hau 7 urtetik gorako haurrei, gazteei eta helduei zuzenduta dago. 30-40 minutu inguruko probaren ondoren emaitzen txostena automatikoki egongo da eskuragarri. Hainbat unibertsitate daude tartean: University of Washington, Univerzita Hradec Králové, The University of Western Australia, e.a. Ondoren, hainbat ariketa eskaintzen ditu estimulazio kognitiborako. Hemen: <https://www.cognifit.com/es/en>

Gehiago jakiteko: <https://www.cognifit.com/es/neurociencia>

3. Ezagutzen al duzu diskalkuliaren arriskua detektatzeko *Smartick*-en testa? Zer detektatzen da? Zein adinetarako? Nork sortu du? Zer egin daiteke ondoren?

<https://www.smartick.es/dyscalculia.html>


Diskalkuliaren arriskua detektatzen du, 6-10 urte bitarteko haurretan, 15 minututan. Valladolideko eta Malagako Unibertsitatearen laguntzarekin egina dago. Ondoren, método bat proposatzen dute, ordainduta. Hen gida teknikoa:
https://www.smartick.es/pdfs/dyscalculia/Test_Discalculia_Manual_Tecnico.pdf

PRAKTIKA 8: GARAPENeko DISGRAFIAREN ALERTA-ZEINUAK

HELBURUA: Garapeko disgrafiara gerturatzea.

ERANTZUN GALDERA HAUEK:

1. Zer da garapeneko disgrafia?
2. Zein alerta-zeinu ikusten duzu idazkera honetan? (Ikus 3. Irudia)




3. Irudia. 9 urteko mutikoaren idazkera

3. Zein esku hartze egin daiteke?

Laguntzarako fitxa**1. Zer da garapeneko disgrafia?**

Idazten ikasten dabilen ikaslearen nahasketa edo ezintasun bat da. Arazo handiak edo esanguratsuak transkripzio-trebezietan (eskuz idazterakoan edo ortografian edo bi arlo hauetan)

2. Zein alerta-zeinu ikusten duzu idazkera honetan? (Ikus 3. Irudia)**3. Irudia. 9 urteko mutikoaren idazkera**

Ez da idazkera ulergarria eta letra xehe batzuk letra larriekin egiten ditu

3. Zein esku hartze egin daiteke?

Ulertzen ez diren letrak modelatu beharko lirateke eta lortu gabe dituen letra xeheak erakutsi. Erabili horretarako 'Letra xeheak bai' argitalpena, doako deskarga duena. Hemen: <https://www.booktegi.eus/liburuak/letra-xeheak-bai/>

PRAKTIKA 9: TXOSTEN-MOTAK EZAGUTZEA

HELBURUA: Askotariko formatuak dituzten txostenak ezagutzea

ERANTZUN GALDERA HAUEK:

Ikuskatu itzazu hezkuntzako sailek eta argitaletxe desberdinek sarean dituzten txosten formatuak.

-Begiratu Kanariar Uharteetako Gobernuaren Hezkuntza sailak dituen txostenak:

https://www.dropbox.com/scl/fi/ykuxpfzy0rr2t2agbo4q8/MODELO-DE-INFORME-PSICOPEDAG-GICO_REVISADO_1.doc?dl=0&rkey=72jpwo02kpn0j0tl5muwkxr2

-Begiratu Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza sailak Orientazio txostenetan duen Ebaluazio Psikopedagogikoaren txostena:

<https://www.educacion.navarra.es/eu/web/dpto/atencion-a-la-diversidad/orientacion-escolar/informes-de-orientacion>

-Begiratu *Pearson* argitaletxeak duen fikziozko txosten bat CELF-5 testarena:

<https://www.pearsonclinical.es/mwdownloads/download/link/id/922/>

-Begiratu *Nesplorak* dituen txostenak:

<https://www.youtube.com/watch?v=2jOq0xUs3LI>

Laguntzarako fitxa

Ikuskatu itzazu hezkuntzako sailek eta argialetxe desberdinek sarean dituzten txosten formatuak.

-Begiratu Kanariar Uharteetako Gobernuaren Hezkuntza sailak dituen txostenak:

https://www.dropbox.com/scl/fi/ykuxpfzy0rr2t2agbo4q8/MODELO-DE-INFORME-PSICOPEDAG-GICO_REVISADO_1.doc?dl=0&rkey=72jpwo02kpn0j0tl5muwkxr2

Txosten baten erdua osotuta ikus dezakezu.

-Begiratu Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza sailak Orientazio txostenetan duen Ebaluazio Psikopedagogikoaren txostena:

<https://www.educacion.navarra.es/eu/web/dpto/atencion-a-la-diversidad/orientacion-escolar/informes-de-orientacion>

Ebaluazio psikopedagogikoaren txostenez gain beste txosten mota batzuk (beste txantiloiredu batzuk) ere badaudela jakitea garrantzitsua da, adibidez, 'Haur hezkuntzako etapa bukaerako laburpen txostena', 'Bigarren Hezkuntza etapa hasierako eskolatzetxostena', e.a.

-Begiratu *Pearson* argialetxeak duen fikziozko txosten bat CELF-5 testarena:

<https://www.pearsonclinical.es/mwdownloads/download/link/id/922/>

8. orrian txosten narratiboa nola dagoen eginda ikusi dezakezu eta 10. orritik aurrera dimentsioak deskribatzen dira, batzbesteko puntuazioa zein den deskribatzen delarik.

-Begiratu *Nesplorak* dituen txostenak:

<https://www.youtube.com/watch?v=2jOq0xUs3LI>

1:23 minututik aurrera txostenaren atalak deskribatzen dira.

PRAKTIKA 10. NORBERE EBALUAZIOA

Bete ezazu kurtso honen autoebaluazioaren txantiloia, hausnarketarako.

ORIENTAZIOA, DIAGNOSIA ETA ESKU HARTZEA HEZKUNTZAN

	1	2	3	4	5
1. Ikasgaiaren ikasitakoarekin pozik nago.					
2. Ikasgaiaren edukiak interesgarriak eta egokiak iruditu zaizkit.					
3. Erabilitako metodologia egokia iruditu zaizkit.					
4. Erabili egingo dut materiala nire lanean (lanaren erreferentzia egitea gogoan izan)					
5. Lan-zama neurrikoa iruditu zait.					

1 Erabat desados

2 Desados

3 Hala nola

4 Ados

5 Erabat ados